

# MENDITAR JAIO NITZAN



(ALEJANDRINO IRURETA=RI)

Zaldiyak zijoazen  
 Bidia betian,  
 Ta kochian jendia  
 Panparroikerian:  
 Eta nik ikusirik  
 (Zergatik ez esan)  
 Etziraten batere  
 Pozarikan eman.

Beste bide batetik  
 Zetozen ardiyak,  
 Tartian zituztela  
 Arkume chikiyak,  
 T'entzunik «ñulun, ñulun»  
 Beren chincherriyak  
 ¡Zer poza biyotz eta  
 Anima neriak!

. . . . .

¡A!... gorde ditzatzute  
 Koche ta zaldiyak,  
 Eta utzi neretzat  
 Mendi ta ardiyak!

ANTONIO ARZÁC.

